


ANTZERKIA. 110 emanaldi egin dituzte 2001eko urritik hona, eta gazteengana iristea lortu dute, sexuaz mintzatuz



PABLO S. QUIZA

Vaiven antzerki taldeko kideak 'Lotsagabe' antzezlanaren aurkezten.

Donostiako II. Antzerki Saria Vaiven taldearen 'Lotsa gabe'-k irabazi du

Ttanttakaren 'Errudun jaioak' obrak aipamen berezia jasoko du Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, Donostiako Antzoki Zaharrean

Ainara Gorostitzu | DONOSTIA

Asteazkenean, hilaren 27an, Antzerkiaren Nazioarteko Egunean, Vaiven antzerki taldeak Donostiako II. Antzerki saria jasoko du, *Lotsa gabe* lanaren «interpretazio fresko eta kalitatezkoari eta testu landuei esker».

Vaiven konpainiaren *Lotsa gabe* antzezlanaren ondoan, Ttanttakaren *Errudun jaioak* obrak aipamen berezia jasoko du, bere «sendotasunagatik eta estetika landuagatik».

Iaz Donostian antolatutako euskarazko ikuskizunetan, bi obra horiez gain, beste lau hau-

tagai zeuden: Txaloren *Emaztea kapelarekin nahastu zuen gizona*, Ttanttakaren *Errudun jaioak*, La tentacion taldearen *Komeriaka* eta Txaloren *Bambulo*.

Gazteek sexuarekin dituzten harreman korapilatsuen ingurukoa da Vaivenen obra. Garbiñe Losadak eta Felipe Lozak idatzi zuten; euskaratu, berriz, Nagore Aranburuk egin du.

Aktore eta ikusle gazteak

Bost antzezleak bezala —Jon Calvo, Dorleta Urretabizkaia, Miren Ibarguren, Gorka Otxoa

eta Maider Yabar—, emanaldietako ikusleak ere gazteak izan dira gehienbat.

Sariak banatzeko ekitaldia datorren asteazkenean egingo da, Donostiako Antzoki Zaharrean. Jose Ramon Amundarainek eginiko eskultura bat jasoko dute, esku bateko bost hartzak sartuz eutsi ahal zaion metalezko eskultura bat. Horrez gain, 9.015 euroko saria jasoko dute, datorren urtean euskarazko obra bat estreinatzeko. Iaz Ttanttakaren *Novecento* obra izan zen saritua.

'Ordu berdea' estreinatuko dute etzi NAEko ikasleek eskolako aretoan

E. Elizondo | IRUÑEA

Ordu berdea izenburuko antzezlanaren estreinatuko dute Nafarroako Antzerki Eskolako ikasleek etzi Iruñean, eskolako aretoan bertan. 12:00etan eta 18:30ean izanen dira emanaldiak, eta igandean ere ordutegi berean ikusi ahal izanen da NAEko ikasleen lana.

Carlos C. Del Riok idatzitako lan horrek NAEk antolatutako haurrentzako antzerki testuen lehia-keta irabazi zuen 1997. urtean. Iazko ekitaldian euskarazko saria eman gabe gelditu zen eta Del Riora aukeratu dute aurten antzezteko. Gaztelaniaz zen jatorrizko bertsoa eta Kike Diez de Uzturronek euskaratu du.

NAEko ikasleekin batera, Maiken Beitia aktoreak parte hartuko du antzezpenean. Maite izeneko emakumearen rola beteko du. Ezkonduta dago eta bi alaba ditu. Ramon Vidal zuzendariak obraren mamia azaldu zuen: «Amak, aitzak bezala, etxetik kanpo lan egingo du, eta egun osoa ematen du batetik bestera. Alabek gurasoei egon nahi dute, eta denbora neurtzen duten erlojuei horretarako *ordu berdea* eskatzen dizkiete». «Haurrek euren gurasoei denbora emateko duten beharrari buruzko gogoeta proposatzen du lanak», gaineratu zuen.

Beitiarekin batera, David Goñi, Susana Gutierrez, Xabi Lopez, Lur Korta eta Miren Itziar Suarezek osatzen dute obran parte hartzen duen aktore taldea.

Ikastetxeentzat ere bai

Larunbateko eta igandeko emanaldien ondotik, datorren astelehen, astearte eta asteazkenean Nafarroako hainbat ikastetxetako ikasleentzat eskainiko dute *Ordu berdea* obra.

Goizez izanen dira emanaldiak, 09:30ean eta 11:30ean. Oraingoan hainbat ikastetxek agertu dute obra ikusteko asmoa.

ANA PIMENTA

VAIVEN ANTZERKI TALDEKO ZUZENDARIA

A.G. | DONOSTIA

Vaiven antzerki taldeak helburu pedagogikoarekin sorturiko obraren arrakastaz eta sariatzat Ana Pimentak hitz egin digu, harrituta, baina gustura.

■ Sari hau 'Lotsa gabe'-k urte eta erdian izan duen arrakastaren erakuslea izan daiteke. Nola jaso duzue?

Egia esan, harrigarria izan da guretzat, ez baikenuen espero. Donostian aurkeztu genuenean izugarritzko arrakasta izan genuen, segituan agortu baitziren sarrerak eta, gainera, sekula antzerkira joaten ez zirenak eraman genituen eta oso hunkigarria izan zen. Baina konpainia indartsuekin lehiatu ginen, Ttanttaka, Txalo eta La tentacionekin. Nik uste dut

«'Lotsa gabe' modu zintzo batean egin dugu; erabat biluzik dago»

ideia, taldea, ikuskizunaren karrera, hau da, atzealdea saritu nahi izan dela. Aktoreek, itzultzaileak eta banatzaileak izugarritzko lana egin dugu.

■ Epaimahaiak obraren freskura eta kalitatea azpimarratu ditu. Zure ustez, zer du lan honek hainbeste gazte erakartzeko?

Modu zintzo batean egin dugu obra hau, erabat biluzik dago, eta gazteentzako oso interesgarria dela uste dut, zentzuei zuzenean hitz egiten die, bihotzera doa eta gazteek dituzten

zalantzei erantzuten die. Asko komunikatzen duen obra da.

■ Obra honetako antzezleak eta ikusleak oso gazteak dira. Euskal antzerkiaren hobetzearen seinale ote da?

Ez nintzateke hori esatera auzartuko, antzerkia krisian baitago beti; arteen sasiko senidea dela dirudi, aurrekontu gutxien duen arte mota da, arazo gehien bertan daude. Baina *Lotsa gabe*-rekin, gutxitan gertatu den bezala, gazteak antzerkira joan dira. Guk erronka bat baltitz bezala hartu dugu, nik ilu-

sio handia bainuen gazteekin eta bi eletan ikuskizun bat egingeko.

■ Zein dira Vaiven taldearen proiektuak?

Gure ideia gazteekin komunikatzen jarraitzea da, eta lehenik, apirilaren 25ean, Portugalgo iraultzaren egunean, *A cuestras con Murphy* estreinatuko dugu Antzoki Zaharrean, euskaraz. Komedia dramatiko erromantikoa da eta Santiago Sanchezek zuzenduko du. Hurrengo proiektua *Sin pelos en la lengua* izango da eta oraindik lanean ari gara horrekin. *Lotsa gabe*-ren eskubideak, berriz, Katalunian erosi dizkigute, eta katalanez egingo du Oriol Grauk zuzenduriko Regina antzerki taldeak. Guk, berriz, Espainian hasiko dugu itzulua.